

## II - ARABAKO LURRALDE HISTORIKOAREN TOKI ADMINISTRAZIOA

### URIBARRI GAUBEAKO ADMINISTRAZIO BATZARRA

#### **Prozedura irekia, janari denda edo supermerkatu izateko merkataritza lokala errentan ematea esleitzeko**

Kontzeju irekiak, 2020ko urtarrilaren 30eko bilkuran, onetsi zuen kontzeju honena den eta Uribarri Gaubean dagoen janari denda edo supermerkatu izateko merkataritza lokala eta haren sotoa (La Iglesia kalea, 15 bis-behea) errentan emateko prozedura irekiaren baldintza administratibo orokorren agiria.

#### **Baldintza agiriaren laburpena**

1º. Lizitazioaren xedea: etxebizitzaz bestelako erabilerarako (janari denda izateko) hiri finka alokatzeko kontratua esleitzea. Finka hori Uribarri Gaubeako (Araba) La Iglesia kaleko 15-bis behean dago.

2º. Lizitazio oinarria: Berrogeita hamar (50,00 euro) hilean, BEZa aparte. Hortik gorako eskaintzak baino ezin dira aurkeztu.

3º. Kontratuaren iraupena: bost urte.

4º. Izapidetzea: presazkoa.

5º. Behin-behineko bermea: ez da eskatzen.

6º. Behin betiko bermea: Behin betiko bermea hiru mila euro izango da.

7º. Espedientearen azterketa: Gaubeako udal bulegoetan (Jesus Guinea arkitektoaren kalea, 46. Uribarri Gaubea. Telefonoa: 945 353 033), jendea atenditzeko orduetan (09:00-15:00), iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egun baliiodunetik aurrera eskaintzak aurkezteko epea bukatu arte.

8º. Agiriak eskuratzea: Agiriak eskuratu daitezke Gaubeako udal bulegoetan, hots, Uribarri Gaubeako Jesus Guinea arkitektoaren kaleko 46.ean.

9º. Eskaintzak aurkeztea:

a) Aurkezteko lekua: Gaubeako Udalaren Erregistro Orokorrean, Uribarri Gaubeako (01426) Jesus Guinea arkitektoaren kaleko 46an.

b) Epea: hamaika egun natural, iragarki hau ALHAOn argitaratu eta hurrengo egunetik aurrera. Azken egun hori larunbata edo jaieguna izango balitz, hurrengo egun baliiodunera arte luzatuko litzateke epea.

c) Ordutegia: 09:00etatik 15:00etara, astelehenetik ostiralera.

10º. Eskaintza eredu eta aurkeztu beharreko agiriak: lizitatuzaileek baldintza agirian jasotzen den eskaintza ereduaren arabera aurkeztuko dituzte eskaintzak, eta bertan adierazitako agiriak ere aurkeztuko dituzte.

11º. Eskaintzak irekitzea: "B" gutun azala (Kontratatze gaitasuna. Ekonomia, finantza eta teknika kaudimena) kontzejuko aretoan irekiko da, ekitaldi ez publikoan, eskaintzak aurkezteko epea bukatutakoan.

"A" gutun azala (eskaintza ekonomikoa eta agiri teknikoak) kontzejuko aretoan irekiko da, ekitaldi publikoan.

12º. Iragarki gastuak: esleipendunak ordainduko ditu.

Uribarri Gaubea, 2020ko maiatzaren 25a

*Lehendakaria*

*J. BERNARDO LÓPEZ DE OCÁRIZ ALZOLA*